

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

1. Arau orokorrak

1.1. Xedea: Bortziriako Euskara Mankomunitateak aisialdiko begiraleen lan poltza dauka aurreko urtetik. Aurreikusiz poltza hori eskas gelditzen ahal dela udalekuetan lanean aritu behar duten begiraleen lanpostu guziak hornitzeko, orain zerrenda hori osatu nahi du. Betiere lehentasuna izanen du aurreko urtean eraturako lan poltsak, eta 2019an eraturako dena haren osagarri izanen da.

1.2. Begiraleek administrazioko D mailako kontratua eta lan sariak izanen dituzte.

2. Eginbeharrak

2.1. Lan taldean aritzea begirale arduradunaren erranetara, eta aisialdi egitarauko ekintzak burura eramatea, betiere udalekuetako programazioan ezarriko diren heziketa balioen arabera.

2.2. Haur taldeak dinamizatzea.

2.3. Eman dakizkiokeen bertzelako lanak.

3. Izangaien baldintzak

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Europako Elkarteko hiritarra izatea
- Hamasei urte beteak izatea.
- Administrazioko D mailako lanpostuetan eskatzen den titulazioa izatea, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, edo horren baliokide izan daitekeen bertzelako tituluren bat.
- Euskaraz jakitea (C1 maila).
- Eginkizunak betetzeko gaitasun fisiko eta psikiko aski izatea.
- Eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik edo gabeturik ez egotea, eta administrazio publikoaren zerbitzutik baztertua ez egotea.

4. Izen emateak eta eskaerak

Eskaerak Bortziriako Euskara Mankomunitatearen egoitzan (Herriko Plaza 7. 31790 Arantza) aurkeztu behar dira, 2019ko maiatzaren 20tik 30era bitartean, 15:00ak baino lehen.

Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera orria (eransten den eredia behar bezala beteta).
- Nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.
- DBHko titulazioa edo baliokidea.
- Baloratzen ahal diren merezimenduak (ikastaroak eta lan esperientzia) egiaztatzen dituzten agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda maiatzaren 31n argitaratuko da, mankomunitatearen webgunean (www.bortziriak.eus).

Izangaiek borts egun naturaleko epea izanen dute erreklamazioak egiteko edo dokumentazioa osatzeko. Ondoren behin betiko zerrenda argitaratuko da.

5. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria.

Ordezkoa: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariordea.

Mahaikidea: Dindaia Fundazioko teknikaria.

Ordezko mahaikidea: Dindaia Fundazioko teknikaria.

Mahaikide-idazkaria: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria.

Ordezko mahaikide-idazkaria: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria.

Epaimahaia probak hasi aitzinetik eratuko da eta gehiengoz erabakiko ditu deialdi honen oinarriak ulertu eta aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak.

6. Proba

Ahozko proba praktikoa egingen da. Proba horren bidez neurtuko da izangaiek lanposturako duten ezagutza eta gaitasuna, baita euskara maila ere. Proba praktikoan udaleku irekietan gerta daitezkeen egoera baten aitzinean izangaiek proposatzen duten irtenbidea neurtuko da. Proba berean, izangaien euskara maila ere neurtuko da, eta baztertuak geldituko dira C1 maila ez duten izangaiek. Probak 10 minutu iraunen du. Izangaiei aitzinetik txandak emanen zaizkie eta ariketa prestatzeko denbora izanen dute. Guztira 70 puntu balio du.

Proba Berako Beralandeta eraikinean egingen da, ekainaren 6an 12:00etan hasita.

7. Merezimenduen balorazioa.

Atal honetan gehienez ere 30 puntu lortu ahalko dira. Aurkezten diren merezimenduak baloratu ahal izateko agiriak aurkeztu beharko dira.

Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

- Formakuntza (gehienez ere 15 puntu):
 - Irakaskuntzan, Pedagogian nahiz Kale Heziketan unibertsitateko titulazioa, erdi nahiz goi mailakoa, izatea edo aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua izatea: gehienez ere 8 puntu.
 - Haurren aisialdiarekin zerikusia duten ikastaro, tailer, jardunaldi eta antzekoetan parte hartu izatea: gehienez ere 7 puntu. Horrelakoak egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan garbi jaso behar da horien iraupena ordu kopuruaren arabera. Puntuak emateko oinarri gisa hartuko da 10 orduko ikastaroa, eta horietako bakoitzagatik 1 puntu emanen da; ikastaroak gehiago edo gutxiago iraun badu, puntuak proportzioan kalkulatu dira.
- Lan esperientzia, lanpostuarekin zerikusia duena (gehienez ere 15 puntu): hori egiaztatzeko enpresa edo elkarteen ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztu beharko da; betiere, aurkezten diren dokumentuetan argi eta garbi adierazi beharko da lanean emandako denbora (kontratuaren hasiera eta bukaera egunak, eta lanean emandako

8. Emaitzak.

Lehiaketaldiaren emaitzak argitara emanen dira oposizioaldia hasi baino lehen.

Emaitza orokorrak ekainaren 7an, emanen dira argitara, mankomunitatearen webgunearen bitartez (www.bortziriak.eus).

9. Lan poltsako zerrendaren funtzionamendua

Hautaketa prozesu hau egin ondotik, osatuko den lan poltsaren erabilera honakoa izanen da:

- Udalekuetan lanean aritzeko behar diren begiraleak kontratatzerakoan lehentasuna izanen dute aitzineko urtetik indarrean dagoen lan poltsako zerrendan dauden izangaiek, puntuazioaren ordenaren arabera.
- Zerrenda horrek ez baditu udalekuetarako behar diren begirale guztien kontratazioa asetzen, lan poltsa osatzeko 2019an egindako hautaketa prozesuan sortutako zerrenda erabiliko da, puntuazioaren araberrako ordena errespetatuta.
- Udalekuak bukatu ondotik bertan lan egin duten begirale guztiei bosna puntu gehituko zaizkie, eta zerrendaren ordena berrikusiko da, etorkizuneko kontratazioetarako. Betiere bost puntu gehituko zaizkie udalekuek iraun duten denbora osoan kontratatuak egon badira; denbora gutxiago eman badute lanean, puntuazioa modu proportzionalean gehituko zaie.

10. Datuen babesa.

Eskatzaileen datuak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera babestuko dira. Datuak Bortziriako Euskara Mankomunitatearen begiraleen lan poltsaren fitxategietan sartuko dira. Norbere datuak ikustea, zuzentzea eta ezereztea eska daiteke baita tratamenduari aurka egitea ere. Horretarako, eskaera bat bidali behar da, idatziz, helbide honetara: Bortziriako Euskara Mankomunitatea, Herriko Plaza, 7, 2, 31790 Arantza (Nafarroa) / euskara@bortziriak.eus.

11. Helegiteak

Deialdi honen edo aplikazio egintzen aurka helegite hauetakoren bat paratzen ahal da, aukeran:

- Administrazioarekiko helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailaren aitzinean, argitara eman eta biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barnean.
- Horren aurretik, eta hala nahi bada, gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegian, argitaratzen denetik hasi eta hilabeteko epearen barnean.
- Berraztertze helegitea, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epearen barnean, jakinarazpen hau hartu eta biharamunetik kontatzen hasita.



Arantzan, 2019ko maiatzaren 15ean
Lehendakaria
Ander Almandoz Indakoetxea



I. ERANSKINA
Eskaeraren eredia

Eskatzaileari buruzko datuak:

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
Herria eta P.K:	
Telefono zenbakia:	
Posta elektronikoa:	

Azalpena:

- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aisialdiko begiraleen lan poltsa osatzeko deialdia egin du, eta horretan parte hartu nahi dut.
- Eskerak aurkezteko epea bukatzean deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut.
- Ez dut karguan aritzea galarazten didan ezintasun fisiko edo psikikorik.
- Honekin batera eskatutako dokumentazioa eta baloratzen diren merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkezten ditut.

Eskaera

Eskaera hau jasotzeko eta hautaketa prozesu honetan onartua izateko.

Arantzan, 2019ko _____aren __ (e)an.
Izptua,

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARI.-